

# Armanak Uskara

edo

# Z

## iberouko Egunaria

1913 gerren ourtheke

Jinkoa eta Herria!  
Zuhurtarizona eta lana!  
Eta bizi belhi Uskalduna!  
Iao! Iao!

I-a-a-a-a-o-o-o-o-o!

SALTZEN DA

Maolen  
TEILLAGORRY enian

Atharratzen  
ESKUALDUNAREN Saltzalian

Prezioa : SOS BAT



### BEGITHARTE HORIEK :

- ⓔ *erran nahi dá* : Estiapen hastia *edo* argizagi oso.  
ⓕ " Argizagi azken laordena.  
ⓐ " Gorapen hastia *edo* argizagi berri.  
ⓓ " Argizagi lehen laordena.
- 

### OURTHEKO BESTA ALDAKORRAK :

SETUAJESIMO, *ourtharila* 19<sup>an</sup>; — HAOSTE, *baranthaila* 1<sup>an</sup>;  
— BAZKO, *Martcho* 23<sup>an</sup>; — ERROGAZONIAK, *aphirila* 28<sup>an</sup>,  
29<sup>an</sup> eta 30<sup>an</sup>; — SALBATORE, *maiatze* 14<sup>an</sup>; — PHENTEKOSTE,  
*maiatze* 11<sup>an</sup>; — BESTABERRI, *maiatze* 22<sup>an</sup>; — ABENTUKO  
LEHEN IGANTIA, *azaro* 30<sup>an</sup>.

---

### LAOR THENPORAK :

Baranthaila 12 <sup>n</sup> , 14 <sup>n</sup> eta 15 <sup>n</sup> .	} Buruila 17 <sup>n</sup> , 19 <sup>n</sup> eta 20 <sup>n</sup> .
Maiatze 14 <sup>n</sup> , 16 <sup>n</sup> eta 17 <sup>n</sup> .	} Abentu 17 <sup>n</sup> , 19 <sup>n</sup> eta 20 <sup>n</sup> .


---

### EKHI ETA ARGIZAGI ULHUNTZIAK :


Aorthen badirate bi ulhun itzaltze oso, martcho 21 eko gaián eta Setemer 14<sup>an</sup>, bena bena ezin ikhousiko direnak Uskal Herrian; aldiz hirour okhi ulhunte phartezko apherila 6<sup>an</sup>, agorrila 31<sup>an</sup> eta setemer 29<sup>an</sup>, hourak ere Uskal Herrian ez ikhoustekoak!




## HANITCH KHASU HOUNI



**Z**IBEROUKO armanaka eginik da bi kartillaz algarreki josirik. Lehena, mehe mehia, hamabi hilabeteren egunaria dena, ourthiaren urhentzian berheztekoa da nahidenaren egiteko. Bigerren kartilla edo phartia, mintzo dena istoriaz, aholku hounez laboriarentako, errezetaz, etc., harek ourthe oroz behar du begiratu arrankurareki. Hollak markaturik dutu bost ourthez arround. Seigerren arraldia, aourthen hasten da.



## ERRAN ZAHAR



Gogorra gogorrareki nekez ertchekei daite.

Goiz gorriak dakharke euri, arrats gorriak eguraldi.  
Goiz orsadar, arrats uthurri.

Goldiaren amorekati pot nabarrari.

Goregi igan dadina ahalkegabeki, behera jaits daite  
ahalkeichuneki.

Gosia bera janki.

Guti edatia eta guti sinhestia da zuhurraren egitia.

Habia egin deneko choria hil.

Halako thupatik, halako arnotik.



Handurreria ezpada Tusuria (edo debria), da houra uduria.

Handiek nahikara, tchipek ahalara.

Handiki hor houna otsoen.

Harri erabiliak eztu biltzen oroldirik.

Hartzen diana, zorduntzenda.

Haz nezak egunko aragiaz, atzoko ogiaz, chazko ardoutik, eta atcheterrak bihoazi.

Haorak hasi, nekiak hasi.

Haor dianak hanitch behar, eztianak gogoan behar.

Haor dianak eztutu beretako bouchirik hobenak.

Haorrik eztianak ez haorminik ere.

Haor maite haz haite, esteiari higa haite.

Haor merda, gorentu denian nagi da.

Haor nigar egin nahiak, aitari bizarra thira.

Haorreki dena etzaten, ezta bethi mantharra chahurik jeikiten.

Haorzaroko orbagna, ezaba daite gaztezaroko.

Hegoa uduri da emazten gogoan.

Helgaitz herena gatik ehadila ordenuziaz achola.

Helgaitz laordena, osagarri gazten, herio **Zaharren**.





## OURTHARILA

Egunak luzatzen dira oren batez.




- a. b., 6<sup>n</sup>, arrastiriko oren eterdit<sup>n</sup>.
- Ⓐ l. l., 15<sup>n</sup>, goizanko 7<sup>or</sup> eta 43<sup>m</sup>.
- Ⓢ a. o., 22<sup>n</sup>, goizanko 11<sup>or</sup> eta 40<sup>m</sup>.
- Ⓒ a. l., 28<sup>n</sup>, goizanko 8<sup>or</sup> eta 52<sup>m</sup>.

## BARANTHAILA

Eg. luzatzen dira oren I eta erdiz.



- a. b., 5<sup>n</sup>, arrastseko 11<sup>or</sup> eta 58<sup>m</sup>.
- Ⓐ l. l., 13<sup>n</sup>, gaiherdi eta 51<sup>m</sup>.
- Ⓢ a. o. 20<sup>n</sup>, goizanko 5<sup>or</sup> eta 45<sup>m</sup>.
- Ⓒ a. l., 27<sup>n</sup>, arrastseko 7<sup>or</sup> eta 28<sup>m</sup>.



1 Astizken.	ZIRKONZISION.	1 Neskanegun.	s. Iñazio.
2 Ostegun.	s. Makari.	2 <b>Ig. Kinkajes.</b>	KHANDERALLU
3 Ostirale.	s <sup>a</sup> Jenevieva.	3 Astelehen.	s. Blasi.
4 Neskanegun.	s. Rigobert.	4 Asteharte.	s <sup>a</sup> Jana, Val.
5 <b>Igante.</b>	s <sup>a</sup> <i>Amelia.</i>	5 Astizken.	HAOSTE.
6 Astelehen.	APHARIZIO.	6 Ostegun.	s <sup>a</sup> Aman.
7 Asteharte.	s <sup>a</sup> Meliana.	7 Ostirale.	s. Romual.
8 Astizken.	s. Luzien.	8 Neskanegun.	s. Johane Mat.
9 Ostegun.	s. Julien.	9 <b>Igante.</b>	GOROZUM. 1 <sup>a</sup> .
10 Ostirale.	s. Marzien.	10 Astelehen.	s <sup>a</sup> Eskolaztika.
11 Neskanegun.	s. Teodoso.	11 Asteharte.	A. B. Lourdakoa.
12 <b>Igante.</b> I.	s <sup>a</sup> <i>Taxiena.</i>	12 Ast. <i>IV Th. B.</i>	A. B. Lourdak
13 Astelehen.	J. K. Bathetiia.	13 Ostegun.	s. Jilbert.
14 Asteharte.	s. Ilera.	14 Ost. <i>IV Th. B.</i>	s. Valenti.
15 Astizken.	s. Phaole, erm.	15 Nes. <i>IV Th. B.</i>	s. Faosti
16 Ostegun.	s. Marzel.	16 <b>Igante.</b>	<i>Gorozumako</i> 2 <sup>a</sup> .
17 Ostirale.	s. Antoni.	17 Astelehen.	s <sup>a</sup> Hiji.
18 Neskanegun.	J. Pheir. Err. Jartia	18 Asteharte.	s. Flavien.
19 <b>Igante.</b>	<i>Setuajesimo.</i>	19 Astizken.	s. Konrad.
20 Astelehen.	s. Fabien eta Sebast.	20 Ostegun.	s. Euche.
21 Asteharte.	s <sup>a</sup> Añes.	21 Ostirale.	s. Pepein.
22 Astizken.	s. Bizente.	22 Neskanegun.	J. Petir. Ant. Jart.
23 Ostegun.	A. B. Ezkontz.	23 <b>Igante.</b>	<i>Gorozumako</i> 3
24 Ostirale.	s. Timote.	24 Astelehen.	J. MATHIAS, ap.
25 Neskanegun.	J. Phaoler. ko.	25 Asteharte.	s. Dosite.
26 <b>Igante.</b>	<i>Setsajesimo.</i>	26 Astizken.	s. Romano.
27 Astelehen.	s. Johane Kris.	27 Ostegun.	s <sup>a</sup> Onorina.
28 Asteharte.	s. Amadeo.	28 Ostirale.	s. Nestor.
29 Astizken.	s. Franz. Sal.		
30 Ostegun.	s. Martina.		
31 Ostirale.	s. Petiri Nol.		



MARTCHOA edo OSTAROUA

Egunak luzatzen dira 2 orenez.




- ⊙ a. b., 7<sup>n</sup>, goizeko 10<sup>or</sup> eta 42<sup>m</sup>.
- ⊕ l. l., 15<sup>n</sup>, arratseko 7<sup>or</sup> eta 56<sup>m</sup>.
- ⊖ a. o., 12<sup>n</sup>, arratseko 10<sup>or</sup> eta 6<sup>m</sup>.
- ⊗ a. l., 29<sup>n</sup>, goizeko 3<sup>or</sup> eta 2<sup>m</sup>.

APHIRILA edo JORRAILA

Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdiz.



- ⊙ a. b., 6<sup>n</sup>, arratseko 10<sup>or</sup> eta 5<sup>m</sup>.
- ⊕ l. l., 13<sup>n</sup>, arrastiriko 3<sup>or</sup> eta 24<sup>m</sup>.
- ⊖ a. o., 20<sup>n</sup>, goizeko 11<sup>or</sup> eta 41<sup>m</sup>.
- ⊗ a. l., 27<sup>n</sup>, goizeko 8<sup>or</sup> eta 48<sup>m</sup>.



- |                   |                            |
|-------------------|----------------------------|
| 1 Neskanegun.     | s. Leon, Baion.            |
| 2 <b>Igante.</b>  | Gorozumako, 4 <sup>a</sup> |
| 3 Astelehen.      | s <sup>a</sup> Kunegonda.  |
| 4 Asteharte.      | s. Kasimir.                |
| 5 Astizken.       | s. Luperkule.              |
| 6 Ostegun.        | s <sup>a</sup> Koleta.     |
| 7 Ostirale.       | s. Tomas Akin              |
| 8 Neskanegun.     | s. Johane J.               |
| 9 <b>Igante.</b>  | PASTONIA.                  |
| 10 Astelehen.     | 40 Martirak.               |
| 11 Asteharte.     | s. Konstanti.              |
| 12 Astizken.      | s. Gregori handia.         |
| 13 Ostegun.       | s <sup>a</sup> Ufrazia.    |
| 14 Ostirale.      | s <sup>a</sup> Matilda.    |
| 15 Neskanegun.    | s. Zakaria.                |
| 16 <b>Igante.</b> | ERRAMU.                    |
| 17 Astelehen.     | s. Patrik.                 |
| 18 Asteharte.     | s. Gabriel, ark.           |
| 19 Astizken.      | s. Jusef.                  |
| 20 Ostegun.       | Osteg. Saintu.             |
| 21 Ostirale.      | Ostir. Saintu.             |
| 22 Neskanegun.    | Neskan. Saintu.            |
| 23 <b>Igante.</b> | BAZKO.                     |
| 24 Astelehen.     | s. Agapit.                 |
| 25 Asteharte.     | A. D. M. Anontz.           |
| 26 Astizken.      | s. Braolio.                |
| 27 Ostegun.       | s. Aletsandre.             |
| 28 Ostirale.      | s. Gontran.                |
| 29 Neskanegun.    | s. Jonas.                  |
| 30 <b>Igante.</b> | s. Amadeo.                 |
| 31 Astelehen.     | s <sup>a</sup> Balbina.    |

- |                      |                             |
|----------------------|-----------------------------|
| 1 Asteharte.         | s. Huges.                   |
| 2 Astizken.          | s. Frantzes P.              |
| 3 Ostegun.           | s. Richart.                 |
| 4 Ostirale.          | s. Isidro Alph.             |
| 5 Neskanegun.        | s. Bizente Perr.            |
| 6 <b>Igante.</b> 2.  | s. Sisto.                   |
| 7 Astelehen.         | s. Herman.                  |
| 8 Asteharte.         | s. Albert.                  |
| 9 Astizken.          | s. Akasio.                  |
| 10 Ostegun.          | s. Ezekiel.                 |
| 11 Ostirale.         | s. Leon hand.               |
| 12 Neskanegun.       | s. Jules.                   |
| 13 <b>Igante.</b> 3. | s <sup>a</sup> Ermenejilda. |
| 14 Astelehen.        | s. Justeñ.                  |
| 15 Asteharte.        | s <sup>a</sup> Anatazia.    |
| 16 Astizken.         | s <sup>a</sup> Grazi.       |
| 17 Ostegun.          | s. Anizet.                  |
| 18 Ostirale.         | s. Elutero.                 |
| 19 Neskanegun.       | s. Leon IX.                 |
| 20 <b>Igante.</b> 4. | s. Teotimo.                 |
| 21 Astelehen.        | s. Anselmo.                 |
| 22 Asteharte.        | s. Sot. eta Kaio            |
| 23 Astizken.         | s. Jorgi.                   |
| 24 Ostegun.          | s. Zerazi.                  |
| 25 Ostirale.         | J. MARK, Eb.                |
| 26 Neskanegun.       | s. Klet eta Mar.            |
| 27 <b>Igante.</b> 5. | s. Zerazio.                 |
| 28 Astel. Errog.     | s. Phaole K.                |
| 39 Asteharte.        | s. Petiri, m.               |
| 30 Astizken.         | s <sup>a</sup> Katalina, S. |



## LABORARIAK SOR-LEKHIAN EGOITEZ DUTIAN ABANTALLAK



(M. Chemark Çugun, Zalgiztar etcheko-jaunak Atharratzeko 2<sup>en</sup> Congrès deithu juntan eman pheredikia.)

Adichkide maitiak,



**G**TZATEKIAN ez eni egun zier mintzaldi hounen egitia ; zeren alde batetik, ez beteziel erraiten ahal zihaouek ez dakizienik deusere, eta beste alde, ezagutzen beitut zier artian, biga bost, ene phartiaren etchekiteko, ni bena kapabliago ziatekianik ; hargatik, adichkide maitiak, esparantcha dut pharkatuko deitadaziela, egunko bilkhura haou mouldatu dian jaoun erespetagarriari plazer egiteko, menturatzen baniz bi hitz llaburen erraitera, goure kartiel hountan, laborariak bizitzeko dutian abantaillez.

### I

Heben girenak, haborouak edo pharterik handiena berere, laborariak, erran nahi beita lur lanetik bizizaliak beikira, ez dut ouste goure artian badela bakhotch bat, orai edo sarri, bere buriari erran ez dianik : « Ah ! laborantcha, estatu phenatia da ; bai, bena ere ountsa saristaturik den estatia da ».

Hargatik, adichkide maitiak, hanitch laborarik eztie khountatzen beren izerdien phakamentutako,

beren etchaltetarik egiten dutien mouzkinak baizik, erran nahi beita, eztiela beren lana phakaturik ikhouston, diharu bouchi bat eskietara jiten zaienin baizik ! Ez da ez hori arrazounamentu chuchena.

Kampagnako langiliaren egiazko phakia da, boulhar bethez iresten dugun aire sano haou ; bizitzeko hartzen dutugun frutu fresk eta sanouak, zounen medioz erraiten ahal beitut, ossagarri houn bat irakourzen dudala zien bat bederaren begithartetan.

Esker kharreia dezagun goure bizi mouldiari, ezi erranen deiziet hanitchek imbeiatzen diela goure kampagnako bizitze sano eta bakezkoua.

Zouazte hiri handi hoietarat, adichkide maitiak, han zer ikhouston da? Ikhouston dira langile, heben aiphatuko ezdududan biziouer emanak, godalet tchikipien eta tabakaren doia irabazten ahal eztiadak ; bena ere ikhouston dira langile familia ounestak, egunian hamabi hamalaour orenez lanian ari izan ondouan, ourthian hamazortzi ehun libera irabazten. Zeren doia da sos houra?

Bizitzeko doi doia ; bena behar beita beztitu, alokaidia phakatu hanitch aita eta ama egonen dira behar diena jan gabe, beren haurren ouhourez eraikiteko.

Halere, adichkide maitiak, zoumbat mouthiko, zoumbat neskatila eztugu ikhouston hiri handi hoietarat jouan beharran ! Ah ! ikhous balitze hanko miseriak ! bena ez, nahiago dutie begiak zerratu ; badouatza edo kampagnako soldaten aski handi gabez, edo lur lanetan ari nahi gabez.

Zoumbat ikhouston da arra-utzutzen aberasturik, edo bederen ossagarri houn batez lagunturik ? Guti edo batere ez. Nihaourek erraiten ahal dut, hirietarat joaiten ezagutu dudun dozena bat persouna gaztatarik, erdiak, hilik direla, ossagarriak galdurik ; eta beste erdiak ez houn hirietan egoiteko, gutiago lur lanetan aritzeko.

Ez direia horik berak, aski proba hounak, goure phar-  
tetik eskerren kharreiatzeko, beren sor lekhiari este-  
kirik egon diren persouna gazter, zouin ari beitira  
gogotik lanian ? Ezdutu ez hourak, ez artho herroka  
baten jorratiak, ez belhar mondoill baten-iaourtiak  
lotsatzen.

Haiek die egiazki kouprenitzen, laborantcha dela  
estatu ooren lilia, praoubiaren bezala aberatsaren  
hazlia ; erresoumarik handiener legia egiten ahal dian  
estatia, laborariak dianaz ganen fornitzen hazkurria ;  
goure gobernazale enthelegutsien estimia merechi dian  
estatia, zeren soldadorik hoberenak eta haborouenak,  
laborari semetarik elkhitzen beitira, Frantziaren defen-  
datzeko.

## II

Hanitchek ouste die laboraria ignorantago dela,  
gaiza orotan, hirietako langilia beno. Zertako hori ? Ichi-  
lago delakoz ! Eztiakoz haimbeste elhe erraiten bil-  
khura hoietan !

Ez dira ez, hor tchampa egile handienak bethi et-  
chiaren begizarale hoberenak ; hanitchetan tchakhur  
ichilkoiak eginen du lehen glichka. Ezda ez erranik  
hiritar horrek, zouin ari beita traouk'ala trebes, elhez,  
deusere kouprenitzen eztian gaizetan, badakiala  
haboro, ichilik, dagon laborari chahar horrek beno.

Orhitzen zait bere oustez sabant zen bati, aldi batez  
agitu zeion ichtoria bat. Beste hanitch bezala, gazterik  
joan zen hirietarat eta hamar etarik bederatzuri agit-  
zen zaiena agitu zeion : sinhestia galdu zian. Bere  
etchenkouen ikhoustera jin zen aldi batez, ikhousirik  
sekula bezain azkar zela fedia, haren sor lekhian egin  
zian bilkhura bat zouintan nahi beitzian probatu etzela  
Jinkorik eta etziela behar sinhetsi kouprenitzen ziren  
gaizak baizik. Elhe horik entzutiarekin, gizon chahar  
batek bere lekhotik erraiten deio : « Errak to, erraiten,  
beituk etzela sinhetsi behar kouprenitzen diren gaizak

baizik, hik koumprenitzen duka noulaz hire aitak eta amak dien asto zaharrak noulaz bi beharriak gibel eta aitzina erabilten dutian, eta hik aldiz, hain abill izan eta, ezpeitutuk erabilten? »

Gizonttouak etzian arraposturik eman ahal izan.

Hortarik ageri da lur lanetik bizi diren gizonak, arrazounamentu chuchenen erraiteko, nour nahi bezain aitzina diela.

### III

Laborariaren bizi mouldiak orano beste bi abantaila ezin estimagarriak badutu : hourak dira goure arimaren bide chuchenian etchekitia, eta goure sorlekhiaren azkar etchekiteko amorioua.

Hiritarrak ahalke dira beren errelijjoneko sendimentien erakastera ; aldiz laboraria ezta ez ahalke ez lotza bere egimbiden bethatzera... Bide hoietan merkhatu hoietan, eguerdi zegniak entzuten direnien, nour ikhouston da bouneta eskian? — Laboraria.

Igantez bezperetan, Eliza selaourian, nour ikhouston da? — Laboraria. Ehortzeta bat denian, hilaren eta hilaren etchenkouen khantian, nour ikhouston da? — Bethi Laboraria. Hiritar tchapelduntto elibat ere finen dira, bai eta hila laguntuko Eliza borthala ; gero meza demboran borthan egonen, edo ostaturik balimbada, harat jouanen ; eztira horik ez, hilaren buhouratzeko ez laguntzeko manerak.

Arren, adichkide maitiak, egon gitian laborari, hora beita estatu ororen erregia, emaiten deizkunaz geroz goure ossagarrarien begiratzeko behar dutugun dire eta hazkurri sanouak horo, goure arimaren bide chuchenian begiratzeko hel bidiak oro. Arren adichkide maitiak, laborantcha maitha dezagun, goure laurrak laborantchan gida ditzagun, algar maitha eta lagunt dezagun ; algarri junta gitian goure zuzenen gerouago eta hobekiago baliaerazteko, bena broz gañetik egon gitian, elhez bezala feitez Uskal-



oro chahatu die, zuhaintziak mouztu, oihanak gale-razi, erra-erazi dutie eta emeki emeki Tripolitaina jarri da orai dena, lur idor harintsu tzar bat.

Hullantchiago tcherkha ditzagun, herri bati, oiha- nek ekharten dutien hounkiak. Aski dugu Uskal-herriari berari sogitia. *Egurra, zourra, hazkurria, itzala* emaiten deizkienaz bestalde, zounbat eta zounbat lagungoa ezteikie egiten bortietako oihanek? Hausten deizkie *aize* borthitzen bouilta gaistoak ; bortu gore- tako *elhur osoak* baratzen dutie ; bena orotako baliou- sena, *uthurriak* eta *uhaitzak* henian etchekitzen deiz- kie, begiratzten dutielarik handitzenegitik. Houna noula.

Elhurtze handi bat agitzen da bortian. Thipilunetan, elhur hori ebi ezti baten edo lehen ekhi beroaren geia da. Laster hourtuko da, eta hourkina hori eraitsiko da batetan, phatarrari behera, lur achala zotukae- razten dialarik ; uhaitza tampez handituko da. Oihan- etan aldiz, elhur pharte bat baratu da, abarretan, eta houra da lehenik hourtuko dena ; lurreko elhurra hourturen da gero, emeki emeki, ebia ado ekhia abarren artetik sarthuko den bezala. Ezta lur achala hola zotukaturik ; uhaitza baratchago handitzen da eta gutiago : lurra luzazago boustirik baratuko da.

Uda bethian, jin dadila erauntsi handi bat. Machela thipiletan, deusek eztu baratzen ebi phezu horren in- darra. Errekachkak arround egiten dira eta algarre- taratzen ; tourroustaka badoatza uholde eta uharriak mendian behera, lur achala azkarki kharrakatzen die- larik. Uhaitza berehala handiturik da eta theiu, hala hala, bertan tchipiturik. Oihanetan aldiz, hasteko, ostoeke edaten die hour hein bat, gero betherik barat- zen dira, pharte houn bat begiratzten die godalet elibatetan bezala. Ostoetan baraturik den hour habo- rochia ekhi batek beroeraziko du eta aidiak gibel hartuko. Gero, lurreko osto idorrek ere hartuko die

hour hanitch ; ororek badakizie osto idorra iraurgeitako houn dela, abelpetan, hola edale delakoz ; edaten du bere phezia berritan eta erdi. Berriz lurriala heltzen diren tchortek indarra hautserik die, osto berde eta idorren artetik igaraitiarekin, eta lurra bera horez hantuko da. Zuhaintzen zainak ere horez hantuko dira, eta hour horik ora joanen emeki emeki, lurpez, uthurrietara. Eta orano ebiaren handiaren bortchaz, errekek egiten eta biltzen hasi direnian, lur achaleko zainek hausten dutie, barreiatzen, arraberhezten.

Egiaz arren erraiten ahal da, eta probaturik da, oihan hanitch dutien bortietako uhaitzak ezdireta hola handizale eta damu-egile ; udan ere egoiten direla hein bat azkar ; han gaintiko uthurriak nekez agortzen direla.

Etsempliak emaiten ahal dutugu, Frantzian berian harturik lehen Erreboluzioniaren aitzinetik, Frantzia betherikago zen, oihanez, orai beno, berheziki Alpetako gaintia. Erreboluzionia jin zenian, bai laborariak, bakhotcha bere gainti, bai herriak berak eman ziren oihan desegitiari, bai egurgei noula nahi mouztez, bai zourak saltzez, bai oihanak gal-eraztez alhagien emendatzeko, eta basa ihizen ohiltzeko. Zer agitu da? Geroztik herri horik gaizki dira, phatarrak lurez gabeturik, uthurriak agorturik, bethi hourte baten lotsan.

*Savoie*-ko departamentian *Bozel* herriko bortiak oro alhagu dira, oihanik gabe. Diala zortzi ourthe, uztailaren 16<sup>an</sup> erreka tchipi bat handitu zen batetan eta hainbeste noun, etche zounbait outhouki beitzutian, bide berria, baratziak, sorhoak, lurez, garallaz eta harriz bethe. Ber departamentian, diala bi ourthe, uztailaren 14<sup>an</sup>, *St Julien de Maurienne* herrian, erreka bat handitu da tampez. Ezpeitu bere usatian erreka horrek kourrieratzen sei mila botilla hour baizik memento hartan bazutian hogeï eta hamar miliou. Oren bat eta erdien buruku sekulan bezain tchipi jarri zen ; han ere ezta bortietan oihanik.

Orano ber departamentu hortan bada *Roselend* ibarra. Hango mendiak oro oihan baratu dira. Hantza hourte handirik. Oihanek ourtheak, ibar hortako herrièr emaiten deie berrogei eta hamar mila liberaren nouzkina.

*Haute-Savoie* departamentian, diala 8 ourthe *St-Cergens*-ko herriak saldu zutian eta arrount chahezazi bortuko oihanak oro. Arren, ezpeitzen han izan orano hourte gaistorik, bat jin zen, oihanak joan bezain sari alhorrak, etchiak, bidiak, burdun bidia, bazterrak oro garallaz bethe beitzutian.

II. — *Etchaltetako oihanak*. — Oihanik batere eztian etchaltia etchalte bilaizia da ; bena ez othe dira goure etchaltiak bilaizirik baratzeko bidian? Zounbat nahi, oihan hoietan, zuhain mota orotarik amiñi bat baden, balere ametzak, haritchak, gaztaña tziak elkhiz geroz, oihanetako hamar zuhainetarik biga etzaizku baratuko. Eta ez othe dira ametzak, haritchak eta gaztañatziak galdurik edo galtzen ari? Lotsa izateko bai eta gaizak nerechi beitu arrankura gitian, ikhous dezagun zer liren hirour zuhain mota hoièn eritarzunak, gaitz horik nountik horra diren eta ez ahal dutugunez othian sendoerazten.

Lehenik aipha ditzagula ametzak eta haritchak algarrekin, ber eritarzunaz jorik beitera, gero gaztañatziak.

*Ametzak eta haritchak* eztira ziberoan phuru bardin ari aitzinaturik. Ohart gira 1907 ian, uda gaisto bousti batetik landa, ametzak eritzen hasi zirela. Geroztik dutugu ikhouston zuhain horik, hurruntik chouri chouriak, uduri elhurrez edo hobekiago irinez betherik. Gaitz hori barreiatu da, batetan, Frantzia guzian, Europa haborochian, bai ere Afrikan eta Asian. Zuhain erien ostoak, hola chouri jarten direlakoz, deitzen die eritarzun hori, haritchen *gaitz chouria*.

Hain berri deia eritarzun hori? Ezta segur eta

uduri luke lehen ere izan dela khochia, ezi Louis XIV gerrenaren demboran bizi zen jakintsun baten liburietan erranik da, ordian bazela ez berbera haritchen bena zuhain haborochen eritarzun bat. Dio jakintsun harek zuhain erien ostoetan agertzen zela erdolla bat bezala eta eritarzuna abiatu zela uda eurizu baten ondotik. Berriz 1843<sup>ian</sup> aiphaturik izan de Frantzian erran delako ostoan erdolla, bena guti ; berriz Portugalian 1877<sup>ian</sup> ; eta orai sekulako gaitzena.

Bedatsian du hasten gaitzak bere kolpia, ostoak zabaltzen abiatziarekin. Gañen eta unguru orotan, jarten zaie halako grosa zourpail bat, minthurik balira bezala ; koloria khanbiatzen zaie, chimaltzen dira, eihartzen, tenoria gabe erorten. Berheziki zuhainak gainkaturik edo chahardekaturik izan badira ; eta, kasik hobeki, oihana hegoari edo eguerdiari phara balinbada ; adio dira bi, hirour ourtheren buruko. Ondoa hil da, ithorik baratu da, ezpeitu, ostorik gabe, behar lukian hatsa hartzen ahal.

Zer da, ororen burian *chouri* houra? Houra da onddo chehe bat miliouka eta miliouka emendatzen dena ; onddo bat aihenaren etsai aspalditik ezagaturik dena, *oïdium* deithia, sofriarekin galerazten den houra eta bera. Sofriarekin galeraz ahal litazke onddo horik ametzetan eta haritchetan, aihenian bezala, bena nour abiatuko da lan horren egitera?

Behar gunuke beste zerbait sendagaillu, ezarteko aisago eta bardin houn. 1910 eko azaroaren 10<sup>ian</sup>, *Nancy* ko profezur den Vuillemin jaunak, berria ekharri zian Pariseko jakintsunen bikhuralat, noula bazen oïdium uduri beste onddo bat, oïdium-aren etsai handia, oïdium-a osoki galerazten diana ; geroztik, zuhainetan chouriaren galerazteko, aski gunukiala onddo oïdium jale hartarik ezartia. Iseiak eginik izan dira bena auherretan oranokorik.

Igaran martchoan, laborarien sendikateko bilkhuran,

Pauen, jaun zounbait hersatu dira Kountseillu jeneralari eia oihan-zain buruzagiek eta professeurs d'agriculture dielakoek eliroienez eman ahal zerbait aholku balio dianik. Administrazioniak ihardetsi du, eritarzun hori, dembora, bat egin ondoan, behar bada joanen dela ; handizkienik aiher zaitzela gainkaturik eta chardekaturik izan diren ametz eta haritcher ; zer hel ere, aholkatzen deikula, eritarzuna joan arte hountan, eztezagun oihanetako zuhain bizi bat aiskoraz hounki. Administrazionia aisa mintzo da eta guti erraiteko. Halere manecheko herri handianetarik batek, Sempereko herriak sinhetsi du haren errana eta deliberatu oihanen ez hounkitzia, ourthe zounbaitez. Areta, Sempereko herriak berak fornitzen zian Baionan erratzen zenegurrik haborochia. Lotsa izateko da guti baliatuko zaion.

Aperentzia ororen arabera ametzak eta haritchak galdurik dira ; heben gaintikoek eztie orano min handirik, bena bestetan joan direnaz geroz, hebenkoek ez ahal die ezkapurik.

Arren loth gitian arround egiazko erremedioari, hora beita *zuhain berrien lanthatzia*, joanik edo joaiten ari diren ametz eta haritchen ordari. Zer lantha? Orotarikche. Ez haatik oraiko erizale hoietarik, arround khoza beilitazke.

Haritchetan beretan, badira hirour mota, khozatzen ez tirenak : hirourak Nort-Amerikatik horra dia. Hourak dira : haritch hollia, beltcha eta hour-ukhurietakoa. Haritch hollia bertan jiten da, hanitch gora da, zourra houn du, badu zi. Donaphaleurat bide berriz joan ziradienek, halako haritch ikhousi duzie Ithorrotzeko jauregiaren khantian.

Lantha zazie *intzagortze* hanitch, intzagorra eta zourra gatik.

Lantha *bago*, egur eta ezkurra gatik ; *leicharra*, hanitch khario saltzen beita karroucha phasta-gei, *publiertze*, *burzuntz*, *astigar*, *urkhi*, *hegiagar*.

Bena ez egon *akaziatze* lanthatu gabe ; lantha ehi da ; aisa jiten da eta bertan ; houn da egur-gei eta kholte-gei ; ondo chuchen eta eijerrak saltzen dira intzagortzia bezain khario.

Arra-lanthatze hori lan da, bena lan egin behar dena, baitezpadakoa. Eztut erran nahi oihana handi-zienek behar diela ber eremu handia zerratu eta-arra-lanthatu ; ez ; alhorgei, sorho-gei, alhagn-gei houn direnak, ezar alhor, sorho eta alhagu. Bena zuhainez betha itzatzie phuru *uthurrien unguruniak*, *phatar tchutak*, *erreken bi bazterrak* eta deusetako eztiren beste guniak oro. Hola egitez, tcherkhatuko duzie kabaler itzal eta hazkurri emaitia, zihaurien egur eta zour, uthurriak begiratuko dutuzie agortzetik, bai eta hautseko uharrien indarra ; eginen duzie zihaurien eta zietarik landankoen houna.

Orai mintza gitian *gaztanatzez*, ezpeiteikie zuhain hoiek arrankura tchipiago emaiten. Badakizie, amini bat khasu egin duzienek, noula gaztanaztoi azkar, berde baten artian, agertzen den lehenik holako hollikura bat, ondo bat edo biga, ostoetan eihartzen ari. Eritartzuna barreatuko da, taka holli hortarik, ungurian orotan, gaztanaztoia oro harturik izan artino. Lehen ourthian ostoak holli, bi, hirour ourtheren buruko, usian, gaztañatzia bera eiharturik.

Eritartzun hori deitzen die zounbait gunetan, gaztañatzen *min-hollia*, ostoen koloria gatik ; beste hanitchetan *ankriaren eritartzuna*, ondoa eihartuz geroz, lur achalian agerian diren zain lodietarik, usu jalkitzen delakoz halako izerdi bat, hour beltzaran bat, izkiribatzeke tinte beltcha edo ankria uduri.

Gaztañatzen gaitza ezta Frantzian ametzen eta haritchen chouria bezain sorthu berri. Lehentze izan da gaitz horren aiphamena, Portugalen, diala lauetan hoge ourthe. Geroztik Españian sarthu zen 1850<sup>ian</sup> ; hantik Frantzialat. Frantzian hasi zen *Uskal-herrian*,

gerlatik landa, Azkaine, Urruña eta Hendaihako lurretan. Frantzian badira 69 departamentu gaztaña dienik, haietarik 27 eritarzunareken dira eta, apercentzien arabera, orotan gaztaña galduko da. Frantzian bezala, gaitza sarthu da Korsan, Italiatan; hots, gaztañatze den erresouma haborochietan.

Zer da eritarzun hori, nountik lotzen da? Jakintsunek gerokotz ezagutu die. *Duconet* jaunak lehenik Montpellierren egonik, orai Parisen profezur dagonak, ountsa probatu du gaitza sartzen dela zuhainaren *zainetan*; ez zain lodietan, bena lurrian barnenik direnetan, emazten bilhoak bezain luze, chehe eta usu diren *zainetan*. Zain hoiien barnian agitzen da khambio bat, halako min bat, jenten min-bizia bezalakoa, eta zain horik kolorez khanbiatzen dira, belzten eta hiltzen. Noula zain hoiiek emaiten beitie zuhañari bizigarria, ostoeak hatsa bezala, zuhaina flakatuko da eta gerokoz eiharturen. Arren ostotako hollikura harek salhatzen du, ez ostoak bena bai zañak direla gaitzak harturik; zainak sendo-eraz eta oro sendo.

Bena noula sendo-eraz zain horik? Iseiatsu dira hanitch gisatara: batian gaztanaztoiak *haitzurtuz*; bestian hounkaillu emanez edo erremedio ondoari ezariz, ungurunian chilo bat egin eta. Bena horik oro auherretan.

Iseiu egin die gero empheltu eginez, eritarzuner ezkapa ziren ondoetan; esprali dutie hanitchko zuhain mota; behin behin esprabu eginik, empheltien ezartia gorago aiphatu hour ukhurietako haritchetan, ouste ukhen die sendagallia edirenik zela; bena azken berriak eztira hainti; Ameriketako haritchari empheltatu gaztanatziak ere hasi dira eihartzen, nahi bada bestiak beno hanitchez zailago diren.

Behar dugia arren etsitu eta sekulakoz gaztañarik gabe baratu? Eztut ouste. Ezi bada, Asia zolan, Japone

deithu erresouma bat, hartan ezpeitira gaztañatziak batere eritzen. Badakizie hebenko aihena galdu denian, atzaman dugula Amerikan, aihen phyloxera biltzen eztianik ; hala, hala borogantcha seriousetan bermaturik den oustekeria da, *Japoniako* gaztañatziak eztirela Frantzian eritzen.

Badu jadanik zortzi ourthe, Japoniako lehen gaztaña aziak sarthu direla Frantzian, bizpahirour lekhotan. Noula japonese gaztañatziak hasten beitira bost ourthetako gaztaña emaiten, behar gunuke orai-koz eskolaturik izan, iseiu hoietan gainen. Bena ez gira orana hortan, houna zertako. Badira Japonian hanitch gaztaña mota, batak lekhu beroetan, bestiak hotzetan jiten direnak. Aperentziak emaiten du, lekhu beroetako gaztanak eztirela ountsa jinen Frantzian. Hatsarrian, noula nahi aziak ereinik izan dira, khasurik egin gabe Japoniako kartiel beroetarik ala hotzetarik jiren ziren. Zer agitu da? Gaztañatze sorthu eta handitu direnetan badira zounbait, zortzi ourthetakoak, ezpeitie gaztañarik orano eman, ez arauz emanen ere ; beste zounbait, bost ourthetako, frutu emaiten hasi dira, bena gaztañak heltu dira ourthetik ourthiala, geroago eta tcharrago ; ondoa aldiz hanitch azkar ; bada mota bar gaztaña hounik ekharten diana, bena ez jakin zer azitarik horra den, hastian aziak nahasirik izan direlako.

Igaran ourthian Omize **P**apeteriako seme, Japonian misionist den *Anchen* jaun aphezak igorri du chakutara bat hanko gaztañetarik Espain Alozeko jaun erretorari buruz. Mou de Espain-ek erein tu berak zounbait eta bestiak phartitu dutu hirour edo laur eskutan. Nihaurek ukhen nian hogeibat, haietarik sorthu beitira bi lanthare-gei. Ouste dut beste zounbait jin diren omize papeterian, Altzai Etchalu-zian eta Onagoitian. Gaztañak Japoneko bortietan eraikietarik ziren, ez eiger eta biribil, bena larria our-

dinchka, bai aldiz phezu eta hebenkoetarik biga bezain larri.

Ber demboran, Broussain Ahazparneko jaun merak ukhen dutu Japoneko beste gaztaña zounbait, gouriak beno eijerrago, biribilago, chehechiagoñi bezala ; horik mota aiphatienetik eta kharicœnetik dira. Hogebat Mousde Broussainek eman beitzzeit, erein nutian besten khantian, eta sorthu dira bederatzu lanthare.

Gousta hola harturik, Mous de Espainek, Mousde Broussainek eta nik, egin dugu Japoneko gaztana beste galtho bat, han diren mota orotarik eta bakhotchetik bostna kilo. Ereinen dutugu eta ountsa jiten direlarik badate lanthare zounbait gihauren eta bestentako.

Bena, guk, hirouren artian egiten duguna, zerentako eztuzie eginen ziek ere? Gaztañatziak galtzera utzirik, ordaristatziak arrankuratu gabe, eztateke gocho ge-roan, arte luze batez, gaztañarik gabe egoitia. Eta laborari bakhotchak egiten ahal eztiana, elukia, herri bakhotchian, *kontsellia*k ahal lur bouchi bat debetazten eta zerratzten Japoniako gaztaña jin-eraz eta han ereiteko? Hola aritzez, balizate zounbait ourtheren burian segurtamena, zouin den goure lurrentako gaztaña motarik hoberena ; bai eta ere aski lanthare prestik, laborari oroer zounbaiten emaiteko.

Eta gaistoenetik joaitez, Japoniako gaztañatzek ezpaleze eman gaztañarik, berere baguntuzke haien ondoak, beren zain sano eta zaillekin, eritarzunari buhurtzen ahal direnak ; eta aski gunuke ondo haietan hebenko lantharetarik empheltatzia.


Solaz hounen urhentzeko azken hitz bat. Ahal izan banitzaizie aski klarki eta aski cheheki mintzatu, aisa enthelegatu dukezie, bai handizkienik bortietan, bai etare goure etchaltetan, zer hounkiak egiten deizkien oihanek, berheziki lurra bethi bere hour doiarekin, uthurriak azkar, uhaitzak ample, etchekitzen deizkielarik.

Hala, hala, gogoan ezari dukezie ametzak eta hari-tchak galtzekoak direla eta eztugula beste erremedio-rik, hambat, oihanen arralanthatzia baizik. Azkenekoz, eztuzie egurukiko, zien gaztañatziak oro joan ditian, arrankuratzeko, zouin zihaurien herrietan haien ordarien Japoniako lantharetarik ezartiaz.

Lur debetatzez eta zerratzez, lanthare haitatzez eta chiloegitez, badukezie negu bat edo bigen lan ; bena lan baliouisa dateke. Horren egitez, utziko dutuzie zien etchaltiak aitzinetik bezain azkar, eta merechitu dukezie laborari zuhur eta khartsu, bai ere egiazko etcheko-jaunaren izena.



## NOULA BEGIRA BORTHAKOAK ERITARZUN HABOROETARIK



(Atharratzeko 2<sup>en</sup> Congrès deithu juntan, M. Dominique Iribarne injeniurrak eman pheredikia.)

**B**ORTHAKOEN eritarzun hanitch horra dira haien zaintzalen ezacholkeriatik. Bethatzen balinbadira kondizione berhezi eli-bat, ehi dateke eritarzun haien hurrun etchekitzia.

Behar da arrankuratu : 1<sup>ik</sup> borthakoen ahal bezain chahuki etchekitziaz ; 2<sup>ik</sup> thegien, behar diren lekhetan eta behar den gisan, egitiaz ; 3<sup>ik</sup> behar den bezalako bazkarik baizik ez emaitiaz.

I. — Chahutarzunaz. — Borthakoak maite du chahutarzuna. Besterik da hanitchen oustekeria, ikhoushten delakoz irailtzen lohietan eta han itzulikatzen. Lohian nahastera joaiten denian, cherkhatzen du

freskura, hourian mainhatzia. Beste aberek beno mimberago du larria, hartakoz, hatz beitu usian, badoa lohialat hatzaren igaraneraztia-gatik. Larria chahiago eta ossagarria segurirago; izerdia behar den bezala jalkhiko zaio eta barnia sanoago baratuko. Segurtatu behar zaio arren ahalaz hour chahian bere mainhien hartzia.

Gizenterazten den borthakoak, mainhiaren lagun, houn du ildopizarraren (*chiendent*) erroekin egiten den espountseta batekin egun oroz hazkaturik izatia ; larriaren houn du, bai ere barnian odolaren trempu hounian ezarteko.

Zounbat laborarik ezdutie uzten beren borthakoak, noula nahi eta noun nahi, zikhinkerian, arrankuratu gabe, behar den arthak hartu faltan edo eskazian, eritarzunak, uzurritiak, haboroetan, jiten direla ezacholkeria hortarik ! Milioukaz kouñtatzen ahal dira Frantzia guzian bide hortarik jiten diren galtziak. Eta gouré Ziberoan, hartuz berbera Atharratzeko kantonada berbera, erraiten ahal da ezacholkeria horrek ekhartzen diala, ourthe-oroz batez beste, ehun bat mila liberaren damia, eritarzunen eretzetik ; aldiz, azken bi ourthe hoietan agitu uzurrite izigarriaren eretzetik, khountatzen ahal da bizpahirour ehun mila liberatara heltzen dela, laborariék egari damia.

Eztugu erran nahi haatik, heben aiphatzen dutugun kondizionen bethatziak borthakoak oro bethi begiratu tuko dutiala eritarzunetarik ; bena, segurki erraiten ahal duguna hau da : hamar eritarzunetan bederatzuetarik begiraturik diratekiala.

II. — *Thegiez.* — Noun egin? Etchen ez huillanegi, urrin gaistoen eta herotsen gatik, ez ere hurrunegi. Haita lekhu sano umitarzunik gabeko bat ; behar bada, lur tink batekin gora thegiaren zola. Begira barrukietako ichouria thegitik huillanegi igaran eztaadin, hor-

tarik borthakoek bil beiliroie erromatisma edo isapela. Ez ezar thegirik oillantegi petan, borthaekok zorririk bil eztezen ; eztenian beste gunerik, oillantegiko zoladuraren taulak ahal bezain tink juntaturik izan ditia.

Nourat buruz? Goure eskualdian, ekhi-jalkhigialat buruz eta aize gaitzetarik acholbian izateko gisan.

Zer phastaz? Murrus ; mourterian eginik balinbadi dira hobe baizik ezta, udan beroari, negian hotzari, buhurtzeko. Hegatzik hoberena bai ere merkena, lastozkoa ; bena suiaren erriska ekharten du. Lastozko hegatzetik landa, hoberena, teillazkoa. Lozaz (*ardoises*) egiten dena, kharioago jiten da, eta ezta hobe, zeren harekin thegiak hanitch hotz beitira negian, aldiz hanitch bero udan. Haatik, erremediatzen ahal da losazko hegatzaren bizioer, losaren pian, hegatzaren alde barnetik, ezarten delarik lasto, khereta eli-batez tinkaturik. Neguko hotz handietan, balinbada thegian cherrama bat bere humekin, hanitch houn date izan dadin haien eta hegatzaren artian selaure zerbait eta hartan gainen abar edo iraurgei atheturik.

Borthek behar die izan azkar eta barroillatzeko gisan. Leihoak ezarten dira bitrekin argia sar ahal dadin ; borthakoak gizenterazten direnian argi gutiago hobe da. Orotako hobena da egin ditian han heben lukena elibat airiaren paseiaerazteko eta berritzeko. Hurrunago ezarten dutugu chehetarzunak.

Thegietan, houn da ezar ditian cherramak beren humekin, gizenterazten diren borthakoetarik berhez ; ber hegatzpian badira barne bederatan ezari behar die, ountsa egitekotz.

Zer handigoa? Hanitchen oustekeria da thegiak tchipiogo eta hobe baizik eztela tcherri saldo baten, negian, beroki etchekitzeko. Hori ezta egia. Horrek huts eginerazten du bi kondizione osoki beharrak direnen segurtatziari : chahutarzunari eta behar den

airiaren emaitiari. Houna zer tregoa behar lizatekian, borthakoen adinari eta saldoari so-ginik.

Metra karratu erdi bat, bi hilabetetako cherri bat entako ;

Metra karratu bat, hamar hilabetetako batentako ;

Bi metra karratu, gizenterazten den borthako-batentako ;

Hirour metra karratu, cherrama hume hazten ari den batentako.

Etsemplu bat : Laborari batek nahi dutu etcheki, ber thegian, batetan, laur cherri gizenterazteko, eta bi cherrama zortzia humekin, batak bi hilabetetakoak, bestiak hamar hilabetetakoak. Thegiak behar dutuke.

Cherrama bezainbeste

3 metra karratu edo. . .  $2 \times 3 = 6$  metra kar.

Cherri gizentzeko bezainbeste

2 metra karratu edo . . .  $4 \times 2 = 8$  —

Hilabetetako cherri bezainbeste

1 metra karratu edo . . .  $8 \times 1 = 8$  —

2 hilabetetako cherri bezainbeste

Metra karratu erdi edo  $8 \times 0.50 = 4$  —

Hortek ekhartzen beitu ororentako . . . . . 26 metra kar.

Zola noulako ? Etzangiako gaintian, taulaz, eta hamabost zantimetraren heina gorago ; etzangiaz kanpoko, pabaturik, edo betouz, zimentaturik, eta patar aidiarekin, ichouriaren kanpo joanerazteko gisan. Taulari esker, aisago borthakoak buhurtzen dira eritarzun zounbaiti ala noula marhantari, erraietako miner, thitietakoer, erchetakoer. Ichouriak eta gorotzak uzten balinbadira chahatu gabe, zokho zounbaitetan, haien urrina, haietarik eraikiten den aire zikhina aski dira eritarzunen eta uzurriten borthakoetara jinerazteko.

Hortakoz ere, khozu gaistoen khentzia-gatik, houn

da ourthian berritan latsunarekin, thegico airiaren purifikatzia.

Makhiñek behar die lein izan barnetik, ardura hourez, demboratik demborala hour beroz, chahaturik.

Barriouak behar du izan thegiaren aitzinian ; pabaturik edo zimentaturik, murruz unguraturik. Zokho batian, ezari behar da borthakoen mainhatzeko houra, erreka batetarik, hegatzeko koteretarik edo beste gisaz bildurik, eta ardura berriturik. Eztira behar borthakoak mainha erazi negian ez apairien ondotik ; begiratu behar dira ere cherramak mainhatzetik errenai direnian edo hume hazten ari.

Borthakoek aire beharra badie, bazkaren gezain ; hats-hartzia jentena uduri die, beste aberek bezala. Aire sanoak barnia ountsa ezarten deioe, gaistoak phozoatzen, odola gastatzen, bihotzaren, polmoen, erraien, ourdaiaren, erchen lana gaizki eginerazten. Noula aire sanoa eman? Leihoak ezpadira zabaltzen, ezta hantik airia berritzen. Bortha zabalik uztez negian, airia batetanegi joaiten da borthakoetara, eta sorerazten dutu eztulak, marhantak, etc. Hobena da, thegiaren murria gorenik den gunian, egin dakion lukena bat 20 zantimetra zabal eta 30 gora. Aphalian aldiz, egiten zaitzo beste lukena bat edo biga, 5 edo 6 zantimetratakoak.

III. — *Bazkaz ere arrankuratu beharda.* — Berek eztie behinere iretsiko phozouik, gordinik jaten dutien hazkurrietan. Egosazten zaitzenetan, khasu egin behar da deus gaistorik ez emaitiari ; ñaboak lursagararak, topinambourrak, larri direnian, lehenik cheheki behar die, bestefñiz, bertanegi eta zouin lehenka janez, borthakoak ithotzen ahal dira edo harturik dira indijestizioniaz edo erchetako minaz.

Borthakoen goulut izate horrek badu bere hoununia ; zer nahi oundar, ountzi chahakin, gachour, bestefñiz balia ahal elitakienak, baliatzen dira haien baz-

katzeko. Bena goulutkeria horrengatik ere, houn da borthakoen ardura purgatzia, *sulfate de soude* delako drogarekin. Droga hori hourian hourterazirik nahasten zaie bazkarekin. Hilabeteko cherrietan hasirik, oro purgatu behar litazke, amoustian behin ; tchipiener emaiten zaie bost grama droga hortarik, larriener 25 grama ; artekoer beren adinaren grado.

Azken bi ourthe hoietan *pneumo-entérite* delako eritarzunak, boulharrak eta erchiak hartzen dutianak damu izigarriak egin dutu bazterretan. Boulharrak badira azkarkienik harturik, borthakoak behar du señatu, behar zaio boulharren eretzian moustarda irinez fretatu, eretz hartan sinapisma ezari, iraurgei hounekin etzangia egin ; umidura edo boustidura kontre dutu. Erchiak badira azkarkienik harturik, borthakoa hilen da hirour laur egunetan barnen, noun ezten aitzinetik ardura purgaturik izatera usaturik. Ezagaturik da, usu purgatu den borthakoa, haboroetan buhurtzen dela eritarzun horri.

Bena, eta hounek hanitch importa du : Osagarritan deno behar da purgatu borthakoa, besteniz, erchetako mina delako uzurritiari ezta ezkapiren ahalko.

Hitz batez, gastu guthiekin, lan doiekin, ukheiten ahal dira thegiak behar diren kondizionetan. Noun ere ezpeitira kondizione horik betherik, behar dira thegiak arra-hounki.

Laborari etchetan, borthakoak segurtatzen du ardurako bizigarria ; ourthe gaistoetan beste gainti batarik egin galtziak bardintzen ahal dutu ; borthako saltzez egin sositik erosten dira eskaz izan diren bihiak edo lur-sagarrak edo belharrak.

Laboraria ountsa jalkhi leite ari baledi borthako hazten, orai artino beno handizki ago ; badutu behar direnak oro hortako ; eremu behar dena thegien handitzeko, lur hounik, lur-sagar, topinambour<sup>o</sup> ñabo,

beteraba, choux-cavaliers, deithu aza-suerte, eraikiteko.

Chahuki etchekiz borthakoak, haier bazka houna emanez, aire sanoa segurtatuz, hamarretarik bederatzuz gutituko dutu bere damu bidiak, kabale hoi enretzetik, eta ountsa phakaturik dateke egin dutukian lanez eta hartu dukian phenaz.



## ISTORIA ETA ERASI



— **I**HIZLARI batek, elge batetan, tiro bat thiratu zian, bi jandarma so zutialarik. Eraiki zian ihizia eta lastarra hartu hantik. Hede chouriak biak zouin lodiago abiatu zaitzon ondotik, hournal ere lasterka. Bide egin ondoan, ihizlaria ukhuratzen da eta zuhain adartsu bati gora igaraiten. Jandarmak ere heltzen dira azkenekoz, hatsalboturik, bidiak eta botek enherik. Ihizlaria ostoen artian gorderik zagon, zerbaiten goustian jatera abiaturik. — « Eraits zite bertan hortik » dio jandarma batek. Ihizlaria ichil ichila. Jandarma zalhenak ordian botak khentzen dutu eta badoa, etchit gathu bat ez ere hartz bat bezain ere zalhe, Bestia petit-gora so, bandan nouiz eraitsiko den ihizlaria. Adarretan gora joan jandarma heltzen da hounen gana eta erraiten deio : « Prozès berbal bat egiten deizut, ihizen ari izan zirelakoz zuzenik gabe. » — Ihizlariak ordian khentzen du bere ihizountzitik port d'armes delako paperra eta erri batekin erakousten jandarma gaizoari. Phentsa nour zen ahalketurik baratu ordian.

— Oihan zain bat bazen, zinez egin bidetzia, alhorren erdiko khuso bati ere berbal bat eginen zeiona khuso harek ukhen balu bi soseko ferblankezko fusull bat saihetsian. Arrantzalentako ere etzen ihizlarien beno eztiago. Egun batez hatzamaiten du arrantzale bat lina luze bat eskian. Ezin egin berbalik sori demborak beitziren. Bena, legiak debetazen beitu amarran tchipiegirik hartzia, oihantzañak dio arrantzaliari: — « Hatzamaiten duzia hanitch? » — « Bai, egun behinere beno haboro. » — « Eta hatzaman dutuzunek badieia behar den handigoa? » — « Bai eta nasaiki ; bestalde hantche ditit oro, zuhain harren ondoan den zare hartan, zihaur segurtatzen ahal zira. » Oihan-zaina badoa eta edireiten du zaria..... hutsik. Phentsa zouñek egin zutian erriak bai eta eginerazi?

\* \* \*

— Atharratzen behin arrantzale batek ukhen zian berbal bat jandarmek eginik, dembora debekatian, arrantzun erauntsi zialakoz. Ondoko egunetan, Alozeko gaintian, jandarmeriari buruz jarten da eta han lina ourthoukitzen du. Desafio horrek jandarmer odola beharri phuntetara joaneratzen deie. Gehienak zalhena igorten du, Alozeko zubia gainti, unguru handia eginik, arrantzaliaren hutsian hatzamaitera. Zalherik bidia egin eta heltzen da. Hainbestenareki, arrantzaliak lina thiratzen du ; suertez arrain bat bada amiarren phuntan. Jandarmak : — « Hutsian hatzamanik zira, egiten deizut, prozès-berbal bat. » — Bestiak : — « Zer diosu ni hutsian nizala ? Arauz eztizu legiak debeketzen tchardina jatia eta, bihar ostiralia beita, ari nuzu biharko tchardinen desgazitzen. » Jandarmak hullantik sogin eta ezagutu behar ukhen zian egia zela. Ez othe zian arrantzaliak bere amandaren baliako erri egin eta egin-erazi eta tchardinak beno segurrago bere amanda ber demboran desgazitu?

\* \* \*

— Soldadogoa artillerian egin zian Tourrout laborariak. Destenorian igaraiten zen gai batze hiriko kharrikan orgekin. Jandarma bat jiten zaio orgetan zer dian galthatzera. Orgetan deusere bi besata ortho-osto baizik. Artillur ohiak deusere ihardetsi gabe egiten du... hasperen bat nountipaitik, tarrat uduri arropak bizkarretik aztaletara urratzen zirela. Jandarmak seriouski egin zeion berbal pour outrages à un gendarme ; jujiak ezin khausi arrazouik elhe gaistorik izan etzen lekhian laidostatzerik edireiteko ; azkenian, Tourrout kondenatzen du pour tapage nocturne.

\* \* \*

— Madama aberats batek ezari du bere haurra un-  
hudian, laborari etche batetan. Badoa egun batez  
ikhoustera, jiten dela jakinerazi gabe. Amañoa su-  
thondo chokhoan edireiten, khuña hutsik : « Noun  
duzu ene haurra? » dio amak. — « Alhorrian aizoko  
haur batekin. » — « Zer ! hamabi ourthiak baizik ez  
dutian neskatchouna harekin? » — « Bai, Madama ;  
aski enthelegu badizu ezi ene antzerak eta cherriak  
ere behin beno haborotan begiratu titzu. »

\* \* \*

— Burdu bidian entzunik behinere algar ezagutu  
etzien bi emaztenartian:— « Baduzia haurrik Madama?  
— « Bai, badit seme bat. » — « Ah ! seme bat. Pipatzen  
dia? » — « Ez ; eztigu egundano zigareta bat hounki. »  
— « Hobe segur ; tabakak gaitz egiten dizu. Eta ba-  
doieia osttatialat? » — « Eztizu behin zankhorik ho-  
lako etchetan sarthu. » — « Felizitazen zutut ; ezdutuzu  
segur oro holako. Erretiro houna dia? Ala berant ut-  
zultzen zaizie gaiez etcherat? » — « Aihal eta berehala  
badoazu oherat. » — « Oh ! arren konduta miragarria  
eroaiten dian seme bat baduzu. Zer adin du? » — « Bi  
hilabete. » Etzien guti erri egin behazalek.

\* \* \*

— Lau ihize houn, sosik gabekoetarik, ountsa bazkaltu ziren ostatu batetan. Jin erazten die mithila, phakatzeko tenoria heltu denian. Hirourek batetan eskia ezarten die sakolan mousaren hartzeko alegia ; laugerrenak erraiten dero mithilari : « Ez hoiien ganik har sos bat ere, ni nuzu phakazale. » Bestek oihuz etziela hala nahi. Ordian batak dio : « Jakiteko nourk phakatu behar dian, dezagun egin utsu-mandoka bat. Mithilari ezariko dugu mahaneko zerbieta bat eta harek hatzemanen diana date phakazale. » — « Bai eta bai. » Mithila hatzamaitekan ari zelarik, laur gizon-toak ezkapatzen dira, bederaka. Herotsiala ostatuko nausia jinik, mithilak hatzamaiten du eta erraiten deio : « Zu zirateke phakazale. » Etzen hanitch trompatu.





## MAIATZA edo EPHAILA

Eg. luzatzen dira oren eta laurdenez




- ⊙ *a. b.*, 5<sup>n</sup>, goizeko 10<sup>or</sup> eta 20<sup>m</sup>.
- ⊕ *l. l.*, 12<sup>n</sup>, goizeko 9<sup>or</sup> eta 56<sup>m</sup>.
- ⊖ *a. o.*, 19<sup>n</sup>, arratseko 10<sup>or</sup> eta 14<sup>m</sup>.
- ⊗ *a. l.*, 27<sup>n</sup>, arrastiriko 2<sup>or</sup> eta 12<sup>m</sup>.

## ARRAMAIATZA edo EKHAINA

Eg. luz. dira oren eta 1/4, 22<sup>a</sup> artino.

- ⊙ *a. b.*, 4<sup>n</sup>, goizeko 2<sup>or</sup> eta 36<sup>m</sup>.
- ⊕ *l. l.*, 11<sup>n</sup>, goizeko 6<sup>or</sup> eta 24<sup>m</sup>.
- ⊖ *a. o.*, 28<sup>n</sup>, arratseko 8<sup>or</sup> eta 39<sup>m</sup>.
- ⊗ *a. l.*, 26<sup>n</sup>, arrastiriko oren eta 34<sup>m</sup>.



- |    |                        |                                |
|----|------------------------|--------------------------------|
| 1  | Ostegun.               | SALBATORE                      |
| 2  | Ostirale.              | s. Atanasi.                    |
| 3  | Neskanegun.            | Da <sup>a</sup> Khurutze.      |
| 4  | <b>Igante.</b>         | sa <sup>a</sup> <i>Monika.</i> |
| 5  | Astelehen.             | s. Pio V.                      |
| 6  | Asteharte.             | J. Johane Eb. B. L.            |
| 7  | Astizken.              | s. Stanizlas.                  |
| 8  | Ostegun.               | J. Migel. agert.               |
| 9  | Ostirale.              | s. Gregori, Na.                |
| 10 | Neskanegun.            | s. Antoneñ.                    |
| 11 | <b>Igante.</b>         | PHENTEKOSTE.                   |
| 12 | Astelehen.             | s. Nere et Akli.               |
| 13 | Asteharte.             | s. Jenio.                      |
| 14 | Astiz. <i>IVTh. B.</i> | s. Johane Sala.                |
| 15 | Ostegun.               | s. Eutrope.                    |
| 16 | Ost. <i>IVTh. B.</i>   | s. Johane Nep.                 |
| 17 | Nesk. <i>IVTh. B.</i>  | s. Paskal                      |
| 18 | <b>Igante. 1.</b>      | TRINITATE.                     |
| 19 | Astelehen.             | s. Pudenziana.                 |
| 20 | Asteharte.             | s. Bernardeñ.                  |
| 21 | Astizken.              | s. Petiri Zel.                 |
| 22 | Ostegun.               | BESTABERRI.                    |
| 23 | Ostirale.              | s. Ubalde.                     |
| 24 | Neskanegun.            | A. B. Laguntzalia.             |
| 25 | <b>Igante. 2.</b>      | s. <i>Gregori VII.</i>         |
| 26 | Astelehen.             | s. Filipe Neri.                |
| 27 | Asteharte.             | s. Mad. P.                     |
| 28 | Astizken.              | s. Agosti.                     |
| 29 | Ostegun.               | s. Matsimin                    |
| 30 | Ostirale.              | J. BIHOTZ SAK.                 |
| 31 | Neskanegun.            | sa <sup>a</sup> Anjela.        |

- |    |                   |                                 |
|----|-------------------|---------------------------------|
| 1  | <b>Igante. 3.</b> | s. <i>Kler.</i>                 |
| 2  | Astelehen.        | s. Potenñ.                      |
| 3  | Asteharte.        | s. Klotilda.                    |
| 4  | Astizken.         | s. Franzes Kar.                 |
| 5  | Ostegun.          | s. Bonifazi.                    |
| 6  | Ostirale.         | s. Klaodio.                     |
| 7  | Neskanegun.       | s. Majan.                       |
| 8  | <b>Igante. 4.</b> | s. <i>Medart.</i>               |
| 9  | Astelehen.        | sa <sup>a</sup> Pelajia.        |
| 10 | Asteharte.        | sa <sup>a</sup> Margarita.      |
| 11 | Astizken.         | J. BARNABE, a.                  |
| 12 | Ostegun.          | s. Johane Fr.                   |
| 13 | Ostirale.         | s. Antoni Pad.                  |
| 14 | Neskanegun.       | s. Basila.                      |
| 15 | <b>Igante. 5.</b> | sa <sup>a</sup> <i>Jermena.</i> |
| 16 | Astelehen.        | s. Frantzés R.                  |
| 17 | Asteharte.        | s. Avit.                        |
| 18 | Astizken.         | sa <sup>a</sup> Marina.         |
| 19 | Ostegun.          | s. Gervasi eta Prot.            |
| 20 | Ostirale.         | sa <sup>a</sup> Juliéna F.      |
| 21 | Neskanegun.       | s. Louis Gonz.                  |
| 22 | <b>Igante. 6.</b> | s. <i>Paolein.</i>              |
| 23 | Astelehen.        | s. Eusebio.                     |
| 24 | Asteharte.        | J. JOHANE BA.                   |
| 25 | Astizken.         | sa <sup>a</sup> Eurosia.        |
| 26 | Ostegun.          | J. Johane eta Paule.            |
| 27 | Ostirale.         | s. Prosper.                     |
| 28 | Neskanegun.       | s. Irene.                       |
| 29 | <b>Igante. 7.</b> | J. PETURI eta P.                |
| 30 | Astelehen.        | J. Paoler. orh.                 |



## UZTAILA

Egunak llaburtzen dira oren 1 ez.




- a. b., 3<sup>n</sup>, arratiriko 4<sup>or</sup> eta 47<sup>m</sup>.  
 ☿ l. l., 10<sup>n</sup>, arrastiriko or. 1 eta 14<sup>m</sup>.  
 ☽ a. o., 17<sup>n</sup>, goizeko 5<sup>or</sup> eta 19<sup>m</sup>.  
 ☾ a. l., 25<sup>n</sup>, goizeko 4<sup>or</sup> eta 29<sup>m</sup>.

## AGORRILA

Egunak llaburtzen dira oren 1 1/2



- a. b., 2<sup>n</sup>, goizeko 4<sup>or</sup> eta 18<sup>m</sup>.  
 ☿ l. l., 8<sup>n</sup>, arratseko 7<sup>or</sup> eta 56<sup>m</sup>.  
 ☽ a. o., 16<sup>n</sup>, arratiriko 4<sup>or</sup> eta 57<sup>m</sup>.  
 ☾ a. l., 24<sup>n</sup>, arratseko 7<sup>or</sup> eta 11<sup>m</sup>.  
 ● a. b., 30<sup>n</sup>, arratseko 5<sup>or</sup> eta 7<sup>m</sup>.



- 1 Asteharte. s. Tierri.  
 2 Astizken. A. B. Bisitaz.  
 3 Ostegun. s. Gillen.  
 4 Ostirale. s. Léon II.  
 5 Neskanegun. s. Zirile.  
 6 **Igante.** 8. J. K. Odol Prez.  
 7 Astelehen. s. Marzial.  
 8 Asteharte. s<sup>a</sup> Beronika.  
 9 Astizken. s<sup>a</sup> Elisabet, P.  
 10 Ostegun. 7 anaie mart.  
 11 Ostirale. s. Pio.  
 12 Neskanegun. J. Johane Galbert.  
 13 **Igante.** 9. s. *Anaklet.*  
 14 Astelehen. s. Bonaventura  
 15 Asteharte. s. Henrik.  
 16 Astizken. A. B. Karmel.  
 17 Ostegun. s. Aletsis.  
 18 Ostirale. s. Kamille.  
 19 Neskanegun. s. Bizente P.  
 20 **Igante.** 10. s. *Filibert.*  
 21 Astelehen. s<sup>a</sup> Pratseda.  
 22 Asteharte. s<sup>a</sup> M. Madalen.  
 23 Astizken. s. Apolinari.  
 24 Ostegun. s<sup>a</sup> Kristina.  
 25 Ostirale. J. JAKOBE, ap.  
 26 Neskanegun. s. Aña.  
 27 **Igante.** 11. s. *Galatori.*  
 28 Astelehen. s. Nazari eta Zelze.  
 29 Asteharte. s<sup>a</sup> Marta.  
 30 Astizken. s. Abdon.  
 31 Ostegun. s. Iñazio Loiola

- 1 Ostirale.  
 2 Neskanegun.  
 3 **Igante.** 12.  
 4 Astelehen.  
 5 Asteharte.  
 6 Astizken.  
 7 Ostegun.  
 8 Ostirale  
 9 Neskanegun.  
 10 **Igante.** 13.  
 11 Astelehen.  
 12 Asteharte.  
 13 Astizken.  
 14 Ostegun.  
 15 Ostirale.  
 16 Neskanegun.  
 17 **Igante.** 14.  
 18 Astelehen.  
 19 Asteharte.  
 20 Astizken.  
 21 Ostegun.  
 22 Ostirale.  
 23 Neskanegun.  
 24 **Igante.** 15.  
 25 Astelehen.  
 26 Asteharte.  
 27 Astizken.  
 28 Ostegun.  
 29 Ostirale.  
 30 Neskanegun.  
 31 **Igante.** 16.  
 J. Petiri katieta.  
 s. Estebe err.  
 J. Ezteb. Edir.  
 s. Dominiche.  
 A. B. Elhur.  
 J. K. Transfig.  
 s. Kajetan.  
 s. Ziriaka.  
 s. Jermein.  
 s. *Laorentz,* m.  
 s. Tiburze.  
 s<sup>a</sup> Klara.  
 s<sup>a</sup> Radegonda.  
 s. Eusebio.  
 A. D. M. ZELIALAT.  
 s. Rok.  
 s. *Joakimo.*  
 s<sup>a</sup> Elena.  
 s<sup>a</sup> Filomena.  
 s. Bernat.  
 s. Julien Lesk.  
 s. Ipolita.  
 s. Filipe Ben.  
 J. BARTOL., ap.  
 s. Louis, err.  
 s. Filibert.  
 s. Jusef Kall.  
 s. Agosti.  
 J. Joh. Lephom  
 s<sup>a</sup> Rosa, Lima.  
 s. Remoun N.



BURUILA edo SETEMER

Eg. llab. dira oren 1 eta 3 laurdenez.




- ☉ l. l., 7<sup>n</sup>, arrastiriko or. 1 eta 23<sup>m</sup>.
- ☽ a. o., 15<sup>n</sup>, goizeko 3<sup>or</sup> eta 49<sup>m</sup>.
- ☿ a. l., 23<sup>n</sup>, goiseko 7<sup>or</sup> eta 55<sup>m</sup>.
- a. b., 29<sup>n</sup>, goiseko 11<sup>or</sup> eta 35<sup>m</sup>.

URRIETA

Eg. llaburtzen dira oren 1 eta erdiz.



- ☉ l. l., 6<sup>n</sup>, arratseko 8<sup>or</sup> eta 48<sup>m</sup>.
- ☽ a. o., 14<sup>n</sup>, arrastiriko or. 1 eta 41<sup>m</sup>.
- ☿ a. l., 22<sup>n</sup>, goizeko 2<sup>or</sup> eta 7<sup>m</sup>.
- a. b., 29<sup>n</sup>, goizeko 2<sup>or</sup> eta 31<sup>m</sup>.



- 1 Astelehen. s. Jiles.
- 2 Asteharte. D. Justi.
- 3 Astizken. s. Lizier.
- 4 Ostegun. s<sup>a</sup>Frantzesa Ch.
- 5 Ostirale. s. Laorenz J.
- 6 Neskanegun. s. Onesiforo.
- 7 **Igante.** 17. s. Zebero.
- 8 Astelehen. A. B. Sortzia.
- 9 Asteharte. s. Omer.
- 10 Astizken. s<sup>a</sup> Pulkeria.
- 11 Ostegun. s. Iazinte.
- 12 Ostirale. s. Gi.
- 13 Neskanegun. s<sup>a</sup> Ujenia.
- 14 **Igante.** 18. A. B. Izen Si<sup>a</sup>.
- 15 Astelehen. s. Nikomede.
- 16 Asteharte. s. Ziprieñ.
- 17 Astizk. *IV Th.* s. Frantz. zaor.
- 18 Ostegun. s. Josef Kup.
- 19 Ostir. *IV Th.* s. Janvier.
- 20 Nesk. *IV Th.* s. Eustache.
- 21 **Igante.** 19. s. MATHIU, Eb.
- 22 Astelehen. A. Maor.
- 23 Asteharte. s<sup>a</sup> Thekla.
- 24 Astizken. A. B. Librazalia
- 25 Ostegun. s. Aostinde.
- 26 Ostirale. s. Tomas Vill.
- 27 Neskanegun. s. Kosma eta Dam.
- 28 **Igante.** 20. s. Faoste.
- 29 Astelehen. J. Migel, ark.
- 30 Asteharte. s. Jeronimo.

- 1 Astizken. s. Remi.
- 2 Ostegun. Ainguru beg.
- 3 Ostirale. s. Binzeslaz.
- 4 Neskanegun. s. Frantzes, As.
- 5 **Igante.** 21. *Arrusarioa.*
- 6 Astelehen. s. Bruno.
- 7 Asteharte. s<sup>a</sup> Fide.
- 8 Astizken. s<sup>a</sup> Brijita.
- 9 Ostegun. s. Denis.
- 10 Ostirale. s. Frantzes B.
- 11 Neskanegun. s. Sabina.
- 12 **Igante.** 22. *A. B. Amatarz.*
- 13 Astelehen. s. Edoart.
- 14 Asteharte. s. Kalista.
- 15 Astizken. s. Teresa.
- 16 Ostegun. s. Beltran.
- 17 Ostirale. s<sup>a</sup> Edvije.
- 18 Neskanegun. s. LUK Ebanj.
- 19 **Igante.** 23. *A. B. Garbitarz*
- 20 Astelehen. s. Grat, Olor.
- 21 Asteharte. s<sup>a</sup> Ursula.
- 22 Astizken. s. Petiri, Alk.
- 23 Ostegun. s. Leotade.
- 24 Ostirale. s. Rafael, ark.
- 25 Neskanegun. s. Krispi.
- 26 **Igante.** 24. *A. B. Patron.*
- 27 Astelehen. s. Fronton.
- 28 Asteharte. J. SIMOUN, ap.
- 29 Astizken. s<sup>a</sup> Eusebia.
- 30 Ostegun. s. Kazien.
- 31 Ostirale. s. Zirizio.



## AZAROA


Egunak llaburtzen dira oren 1<sup>3</sup>.

- D) l. l., 5<sup>n</sup>, arratseko 10<sup>or</sup> eta 46<sup>m</sup>.  
 E) a. o., 13<sup>n</sup>, arrastiriko 4<sup>or</sup> eta 13<sup>m</sup>.  
 F) a. l., 20<sup>n</sup>, goizeko 3<sup>or</sup> eta 38<sup>m</sup>.  
 G) a. b., 27<sup>n</sup>, goizeko 2<sup>or</sup> eta 5<sup>m</sup>.

## ABENTIA edo NEGILA

Eg. llaburtzen dira 27<sup>min</sup>, 22<sup>no</sup>.


- D) l. l., 5<sup>n</sup>, arratseko 8<sup>or</sup> eta 7<sup>m</sup>.  
 E) a. o., 13<sup>n</sup>, goizeko 4<sup>or</sup> eterditn.  
 F) a. l., 20<sup>n</sup>, arratseko 8<sup>or</sup> eta 12<sup>m</sup>.  
 G) a. b., 27<sup>n</sup>, arrastiriko 5<sup>or</sup> eta 7<sup>m</sup>.




- |                       |                                |
|-----------------------|--------------------------------|
| 1 Neskanegun.         | DONISANTORE.                   |
| 2 <b>Igante.</b> 25.  | <i>Purg. Arimak.</i>           |
| 3 Astelehen.          | s. Ubert.                      |
| 4 Asteharte.          | s. Charles Bor.                |
| 5 Astizken.           | s. Zakaria.                    |
| 6 Ostegun.            | s. Léonart.                    |
| 7 Ostirale.           | s. Florent.                    |
| 8 Neskanegun.         | Lao Martirak.                  |
| 9 <b>Igante.</b> 26.  | ELIZEN SAKR.                   |
| 10 Astelehen.         | s. Andreu Av.                  |
| 11 Asteharte.         | J. MARTINE.                    |
| 12 Astizken.          | s. Stanizlaz K.                |
| 13 Ostegun.           | s. Didazi.                     |
| 14 Ostirale.          | s. Josafat.                    |
| 15 Neskanegun.        | s. Jertruda.                   |
| 16 <b>Igante.</b> 27. | s. Edmon.                      |
| 17 Astelehen.         | s. Gregori, Taum.              |
| 18 Asteharte.         | s. Odon.                       |
| 19 Astizken.          | s <sup>a</sup> Elisabet Ong    |
| 20 Ostegun.           | s. Felis Valesi.               |
| 21 Ostirale.          | A. B. Eskentzia.               |
| 22 Neskanegun.        | s <sup>a</sup> Zezila.         |
| 23 <b>Igante.</b> 28. | s. <i>Klement.</i>             |
| 24 Astelehen.         | J. Johane Kh.                  |
| 25 Asteharte.         | s <sup>a</sup> Katalina.       |
| 26 Astizken.          | s. Konrad.                     |
| 27 Ostegun.           | s. Virjilo.                    |
| 28 Ostirale.          | s. Maorino.                    |
| 29 Neskanegun.        | J. ANDREU, Ap.                 |
| 30 <b>Igante.</b>     | <i>Abentuko 1<sup>a</sup>.</i> |

- |                         |                                |
|-------------------------|--------------------------------|
| 1 Astelehen.            | s. Eloi.                       |
| 2 Asteharte.            | s <sup>a</sup> Bibiana.        |
| 3 Astizken.             | s. Frantz. Zab.                |
| 4 Ostegun.              | s <sup>a</sup> Barbara.        |
| 5 Ostirale.             | s. Sabas.                      |
| 6 Neskanegun.           | s. Nikolas.                    |
| 7 <b>Igante.</b>        | <i>Abentuko 2<sup>a</sup>.</i> |
| 8 Astelehen.            | A. B. KONZEPZ.                 |
| 9 Asteharte.            | s. Jeronze.                    |
| 10 Astizken.            | s <sup>a</sup> Eulalia.        |
| 11 Ostegun.             | s. Daniel.                     |
| 12 Ostirale.            | s. Melkiade.                   |
| 13 Neskanegun.          | s <sup>a</sup> Luzia.          |
| 14 <b>Igante.</b>       | <i>Abentuko 3<sup>a</sup></i>  |
| 15 Astelehen.           | s. Arzene.                     |
| 16 Asteharte.           | s. Mismein.                    |
| 17 Astiz. <i>IV Th.</i> | s. Euzebio.                    |
| 18 Ostegun.             | s. Lazaro.                     |
| 19 Ostir. <i>IV Th.</i> | s. Gazieñ.                     |
| 20 Nesk. <i>IV Th.</i>  | s. Urbeñ.                      |
| 21 <b>Igante.</b>       | <i>Abentuko 4<sup>a</sup></i>  |
| 22 Astelehen.           | s. TOMAS, Ap.                  |
| 23 Asteharte.           | s. Onorat.                     |
| 24 Astizker.            | s <sup>a</sup> Delfina.        |
| 25 Ostegun.             | EGUBERRI.                      |
| 26 Ostirale.            | <i>J. Eztebe, M.</i>           |
| 27 Neskanegun.          | J. JOHANE, Eb.                 |
| 28 <b>Igante.</b>       | <i>Haor Inozent.</i>           |
| 29 Astelehen.           | s. Tomas, K.                   |
| 30 Asteharte.           | s. Manzuet.                    |
| 31 Astizken.            | s. Silbestre.                  |





# Edirengia



I. Laborariak sor lekhian egoitez dutian abantallak .....	121
II. Zuhanen eritarzunaz eta haien arraberi katziotz.....	125
III. Noula begira borthakoak eritarzun haboro etarik.....	135
IV. Istoria eta erasi .....	141

